#euskarabildua
TEKNOLOGIA + KOMUNIKAZIOA

Bestelako sare sozial batzuk posible dira: Fedibertsoa

Asier Iturralde Sarasola
@aldatsa@mastodon.eus

iametza
BI PUNTUREN ARTEKO LOTURA

Donostia, 2019ko urriak 24

Softwarea eta teknologia ez dira neutralak

- ARGIAko lagunek aste honetan aurkeztu dute “Ez gara neutralak” liburua
- Kazetaritza ez da eta ezin da neutrala izan
- Software eta teknologia ere ez dira neutralak

Softwarea eta teknologia ez dira neutralak

Softwarea eta teknologia ez dira neutralak

- Softwarea helburu jakin batzuekin sortzen da
- Erabiltzaileak ala erabiliak?
- Erabiltzailea erdigunean jarri daiteke eta bere askatasuna errespetatu
- Edo irabaziak lehenetsi, horretarako erabiltzaileak zukutuz

Fedibertsoa - Sare sozialen beste eredu bat

- Fedibertsoa = Federazioa + Unibertsoa
- Sare sozial desberdinak baina elkarren artean bateragarriak
- Elkarren artean komunikatu daitezkeen milaka komunitatez osatua
- Software librea direnez norbere komunitatea sortzeko aukera

Sare sozial komertzialak vs Fedibertsoa

- Erabat zentralizatuak daude
- Jabeak kontrol osoa du
- Zentsurarako aukera
- Jabeak irabazi asmoa duten enpresak dira
- Publizitatea
- Erabiltzailea bera merkantzia bihurtzen da

- Elkarren artean konektatutako komunitateak
- Komunitate bakoitza burujabea da
- Gertuko moderazioa. Beti dago beste komunitate batera joateko aukera
- Orokorrean ez dago irabazi asmorik
- Ez dago publizitaterik
- Ikuspuntu humanoagoa, erabiltzailea ez da produktu bat

Sareen arkitekturak

- Paul Baran ikerlariaren "On distributed communications" (1964)



Fig. 1—(a) Centralized. (b) Decentralized. (c) Distributed networks.

Sareen arkitekturak - Sare zentralizatua

- Zerbitzu erabat zentralizatuak dira.
- Erabiltzaile guztiak instantzia bakarrera konektatzen dira.
- Instantziaren jabea den enpresa edo erakundeak du kontrol osoa.
- Adibideak: Twitter, Facebook, Instagram...



(a)

Fig. 1—(a) Centralized.

Sareen arkitekturak - Sare deszentralizatua

- Elkarren artean komunikatu daitezkeen hainbat instantziak osatutako sarea.
- Ez dago erdigune bakarra, maila bereko erdigune asko baizik.
- Instantzia bakoitzak bere arauak jar ditzake.
- Erabiltzaileak zein instantzia erabili nahi duen hautatu dezake edo bere propioa sortu.
- Gaur egun sare federatua ere deitzen zaio
- Adibideak: E-maila, XMPP, Mastodon, Pixelfed, Peertube...



(b)

(b) Decentralized.

Sareen arkitekturak - Sare banatua

- Sareko nodo guztiak maila berean daude.
- Ez dago erdigunerik.
- Elkarrekintzak parekoen artean ematen dira, ez dago bezero/zerbitzari bereizketarik.
- Adibideak: BitTorrent, Tsunami Democratic aplikazioa...



(c)

(c) Distributed networks.

Zer da software librea?

- Softwarea edozein helbururekin erabiltzeko askatasuna
- Softwarea aztertu eta norbere beharretara egokitzeko askatasuna
- Softwarea kopiatu eta kopiak banatzeko askatasuna
- Softwarea hobetu eta hobetutako bertsioa banatzeko askatasuna

FREE SOFTWARE FOUNDATION

Fedibertsoko proiektuak

- Mikroblogintza: Mastodon, Pleroma...
- Argazkiak: Pixelfed
- Bideoak: Peertube
- Blogak: Wordpress (ActivityPub plugina), WriteFreely, Plume
- ...

Euskal Fedibertsoaren jatorriak

- Azken aldi honetan Euskal Fedibertsoa indartzen ari da, baina badu bere historia

- 2010eko hamarkadaren hasieran StatusNet software libreko proiektuaren kodea erabiliz instantzia batzuk sortu ziren Euskal Herrian:
  - status.blogsoviet.com
  - status.manillar.es

- Orduan ere Librezaleri esker erabil zitekeen euskaraz

status.net BLOGSOVIET

Izena eman

PUBLIKOA

- PUBLIKOA
- TALDEAK
- ETIKETA BERRIAK
- ARRAKASTATSUA
- DIRECTORY

Denbora-lerro publikoa, 2. orria

txopi
#AldaketaGlobala Euskal Herrian

Time: Thu, January 1, 1970, 1:00am – 1:00am (CET)

Attending:
Yes:
No:
Maybe:

orain dela 4 egun inguru nork identi.ca

Naroa Elortza
#auzolan-en esan zan gauza bera RT: @markelolano: Jonan: Bizi dugun krisi orokorraren oinarrian, zoriontasun berekoian oinarritutako ideologia dago. #baketik

orain dela 3 egun inguru nork web

Imanol Epelde
Putzuzulok sei urte handi beteko ditu laster. Rap kantu bat eskaini digute urteurrena ospatzeko. Earra! http://www.27zapata.com/?p=574

OHAR ARRAKASTATSUAK

Gure blogsovietaren status-a Twitter baino hobeagoa da eta ez da broma. Kontuak sortzera gonbidatzen zaituztet.
orain dela 8 egun inguru

answered "Gustatzen Statusnet bertsio berria?"
orain dela 10 egun inguru

Txapuza batekin, baina jada Barajuen ez da Espainia
orain dela 7 egun inguru

[27] Poteko melokotoia, hi! http://www.27zapata.com/?p=555 Eta euskaraz iraintzeko pdf bat http://ttiki.com/31690
orain dela 9 egun inguru

"hetERO" kortoaren lotura zuzena hauxe da... http://youtu.be/47UaCpC-kHI
orain dela hilabete bat inguru

Artsuaga CC-BY-SA 3.0 (Wikimedia Commons)

Mastodon

- Fedibertsoko mikroblogintza sare sozial bat da
- Mezuek gehienez 500 karaktere
- Irudiak, audioak eta bideo laburrak...
- Mezuak ordena kronologikoan agertzen dira denbora-lerroan
- Komunitate bakoitzak emoji pertsonalizatuak
- Milaka instantzia: mastodon.social, mastodon.art, mastodont.cat...
- Euskaraz erabil daiteke Librezale.eusi esker

Mastodon.eus eta Mastodon.jalgi.eus euskal instantziak

- 2018an ia aldi berean bi Mastodon komunitate sortu ziren Euskal Herrian
  - mastodon.eus
  - mastodon.jalgi.eus
- Bien artean 2.000 erabiltzaile erregistratu baino gehiago
- Komunitate bateko erabiltzaileek bestekoak jarraitu ditzakete
- Euskararen arnasguneak baina mundura irekiak

Mastodon.eus

- Sorreran PuntuEUS Fundazioa, Azkue Fundazioa, iametza, Talaios Koop., Dinahosting, laborategia.eus...
- Gaur egun Mastodon.eus erabiltzaile komunitate bat da
- Komunitateak hitza eta erabakia izatea nahi dugu
- Laster partehartze prozesu bat abiaraziko dugu

Pleroma

- Fedibertsoko mikroblogintza sare sozial bat da
- Mezuek 5000 karaktere arte izan ditzakete
- Instantzia barneko txata dauka
- Ehunka instantzia: pleroma.site, ...
- Euskal Herrian Tartekak sortutako instantzia txiki bat dago: pleroma.libretux.com
- Berak eta beste erabiltzaile batzuek proiektua euskarara itzuli dute



Pixelfed

- Fedibertsoko argazkigintza sare sozial federatu bat da
- 100 instantzia inguru daude: pixelfed.social, pxlfd.me...
- Euskal Herrian Urtzi Odriozolak (CodeSyntaxeko garatzailea, Game Erauntsia...) mantentzen duen instantzia bat dago: pixelfed.eus



Peertube

- Fedibertsoko bideogintza sare sozial federatu bat da
- Ehunka instantzia daude: peertube.social...
- Instantziak elkarren artean federatu daitezke, bateko edukia besteetan ikusi daiteke
- Mastodonetik Peertubeko kanalak jarraitu daitezke eta erantzun bezala idatzitako tutak iruzkin bezala agertzen dira bideoan
- Euskaraz erabil daiteke Librezale.eusi esker
- P2P streaming-a


PeerTube

peertube.euskarabildua.eus

iametzako garapen taldean Euskarabilduaren 8 edizioetako hitzaldien bideoak biltzeko instantzia bat sortu dugu aste honetan: peertube.euskarabildua.eus



WriteFreely, Plume eta... Wordpress!

- WriteFreely eta Plume Fedibertsoko blogintza sare sozialak federatuak dira
- Bien artean 200 bat instantzia dituzte
- Wordpressek berriz ez dut uste azalpen handirik behar duenik. Webguneen guztien laurden bat baino gehiago Wordpress-en oinarrituta daude
- iametza.eus Wordpress-era migratu dugu aurten eta ezusteko polita aurkitu dugu
- ActivityPub plugina erabiliz Wordpress Fedibertsoratu daiteke!
- Oraindik Beta egoeran dago baina blogeko egileak Fedibertsotik jarraitzeko aukera ematen du eta erantzun gisa idatzitako tutak iruzkin bezala agertzen dira artikuluan

MILA ESKER
GALDERARIK?